

TITO BRANDSMA, DACHAU'ko MARTIRI
(1881-1942)



Barrero be zoriondun barri baten izena dator gure aldizkari onen orrietara. Eta gaurkoan aparteko eta zioz. Oraingo au prentsaren martiritzat dagoalako, iñoren jauntxokeriri jaramo-

nik egin barik egiaren alde jokatzekoa daben egunkeri eta aldizkariari eustearren bere bizia eskiñi eban bat dalako.

Gaurko gizarteak ez dauke bere aurrerakintzakaz arroegi egoterik. Dachau edo Auschwitz, edo Gulag edo beste zigorlekuek, edo Hiroshima eta beste triskantze-lekuek sortzen dituen bitartean, geiago dauka zetzaz lotsatu eta negar egin, zetzaz arrotu eta poztu baiño. Arlo askotan aurrera doa gizona, izadiko indarren legeak aurkitu eta menderatzen eta olako arloetan; baiña bere barruko txarrerako indarrak ezi ta menderatzen, gorrotorako grinak ezten ez dau oindio asko ikasi. Dachau eta aitatu direan zigor-lekuen izenak, lekuko. Gizonen gizartzarketia erakusteko, gizonak gizona zapaltzeko asmau dituan lotsagarrienen izen bildurgarriak dira.

Zorionez, leku orreik ez dabe bakarrik gizonaren alderdi illuna erakusten. Borreru anker zital eginda dabilzanaren artean be, gizonaren benetako anditasuna erakusten daben beste batzuk agertzen dira. Gizon andi agertu zan olango leku baten Maximiliano Kolbe, seme-alaba askotxoren aita zan baten ordeaz ilteko, bere bizia eskiñi eban. Orain santuen maillan, gizonik bikaiñenen maillan daukagu. Olakoxe dogu gaur TITO BRANSMA, Holandako seme argia, judeguen babesle izatearren, Elizearren eskubideak eta egunkari askatasuna zaintzearren, Dachau'n nazitarrak il ebena.

Gure artean ez dot uste martiri onen izena asko zabaldu danik. Ezcaguna edo gitxi ezaguna da. Holandan, oster, santutzat eta euren erritar bikain erraldoitzat dauke, eta ango errieta-ko plaza, kale eta erakunde askok *Brandsma'ren* izena daroe. Eta, azkenez, Elizeak Holandarrak emoniko santu izena, martiri izena ontzat emon dau. Gaurkotasunara atxakiaz, gure aldizkari onek ez du beronen izena baztertu nai.

Holanda'ko seme, praille karmeldar

Tito Brandsma ez da edozein. Nortasuna andiko gizona da. Holandan jaioa, 1881garrenean, Anno Sjoerd izenaz bateatua,

Gurasoak baserritarrak ditu. Eurak pozik artu dabe mutikoaren jaiotza, artean alabak (bi) izan dituezalako. Berau be lenengo mutilla; gero beste mutil bat eta neska bat izango dabez.

Anno makaltxoá da baserriko lanetan ekiteko. Lanik errezenetan darabille, beiak zaintzen, lanerako tresnak prest eukiten eta olan. Baiña eskolan buru argia dakar. Osaba bat praille mihiolari dau, eta mutikoari be laster egin jako prailletzarako gogoá. Non, eta karmeldar zarren artean. Prailletzan be ikasteko buru argia erakutsi dau, eta luma-lanetarako zaletasuna. Ikasle lagunen artean aldizkaritxo bat sortu dau, eta bera da geien idazten dauana, naiz bertsotan, naiz ostean. Ogei urte dituela, liburu bat be argitaratu deutsoe, Teresa Deunaren *Lorategia*, moja santa onen esaera autatuakaz egimiko sorte ederra. Holandako ikasketak amaitu dituanean, meza emon eta gerotxoago Erromara bialdu dabe, an ikasketak jarraitzeko. Erromatik Filofosian Doktor agiria dakarrala itzuliko da Holandara. Esan daigun, praille egin danean, bateoko izena aldatu egin duela, eta here aitaren izena artu: Tito. Tito Brandsma izango da arrezkero.

Irakasle, sermolari, idazle

Erromatik Holandara itzuli danean, 1910 inguruan, filosofo eta teologoen ikastetxera bialdu dabe. Prailen arteko irakaskuntza barriztau bearrean dagoala-ta, nagusiak Tito gazteari esarri deutsoe orretarako arau ta egitarauak aurkesteko ardurua. Baiña etxe-barruko irakasle-lana ez da Tito gaztearentzat naikoa. Sermolari lez, laster zabaldu da praille gaztearen izena.

Ez da bera sermolari apain dotoretakoa; baiña bai mamin-tsua eta beroa, barru-barrutik darion berbaduna. Entzuleak maitte dabe olango berbetea, eta nonaitik jatorkoz sermoi-eske: errietako jaietarako, gazte taldeai itz egiteko, moja gogojardunak emoteko, eta abar. Berbatuta egon dan sermolari batek joan-eziña daukanean, nora joan? Tito gazteagana, eta au beti dauke prest, eta ondo bai ondo beteko dau edozeiñen utsunca.

Erririk erri olan dabillenean, alaitasuna zabaltzen dau bazter

guztictan, eta edozein langilleari laguntzeko prest egoten da. Es-ku-burdiari bultz egin bear bada be bai. «Baña au ez da zuk egi-teko lana, praillea» esango deutso langilleak, eta berak: «Bota diogun neure maletatxoa ganera, eta ikusiko dogu ze ederto doan dana».

Idazteko zaletasuna ez dauka galduta. Prailleen arteko aldiz-kari batzuk sortu ditu, eta bera dabe edo zuzendari,edo idazle ja-rraituena. Prailleenak ez direan aldizkarietatik be askotan jatorkoz artikulua edo olerki eske. Beti izan da eta izango da geixotia, eta iñok ez daki nondik ateraten dauan astirik edo indarrik ainbeste lani eta ainbeste eskeri erantzuteko. Ainbeste idazlanen artean 1918-1919 lan eder bat argitaratu dau: Teresa deunaren libu-ruak Holandako izkuntzara itzulita.

Nimegako irakasle eta Rector Magnificus

Aita Titok bein baño geiagotan erakutsi eban urriñetako errien batera mixiolari joateko gogoa: 1922n. Berak cuki eban Holandan Mixio-Batzar andi bat eratzeko ardurea, eta ainbat itzaldi egin eban bertan. Baña ez jakon Mixiotarako biderik za-baldu. Holandak bertarako bear eban eta bertan lotuago geldi-tuko da Nimegako Ikastetxe Nagusia sortu zanean, 1923n, ango irakazle egingo daben ezkeru. An irakatsi bear dituan gaiak: Fi-losofiaren eta Mistikaren kondaira, edestia. Oso maite zituan gaiak dira. Mistikak Jaungoikoagana eta Jaungoikoaren adiskide-rik andienetan murgiltzera daroa, eta Filosofoen bitartez be, ikasleak Jaungoikoagana, izate guztien sorlekura eroaten ei daki.

Mistikoetan aparteko ardurea ipinten ei eban Holandako mistikoak azaltzen. Ango mistiko ezagunak eta ez ezagunak, guztiak azaldu bear zituen, eta euren mistika-lanak argitaratu barik eukezanean liburuak argitaratzen lan andia egingo dau. Eta bardin arduratuko da beste iñondiko mistikoen liburuak Holan-dako izkuntzara itzuli eta argitaratzen. Eta ez antziñakoak baka-rrik, gaurkoak be bai. Eta olan argitaraturiko liburu askori berak sarrera mamintsu sakonak ipiñiko deutsez.

Nimegako Ikastetxe sortu barri ori aurrerabidean jartzen

esku andia izango dau Aita Tito Brandsmak, esaterako bertako arauak idazten. Ikastetxeak argitaratu nai zituen liburu-saillak ateratzeko argibideak emoten, eta abar. Ondo saritu eban Ikastetxeak berak Tito Brandsmaren lana, 1932n bertako *Rector Magnificus* izentatu ebenean. Ikasle askok ordurako santutzat euketen. Kurutzearen mistika askotan azaltzen ei eban, eta mistika ori berak bizi be egiten ebala igarten ei jakon Aita Titok azaltzen eban mistika ori ez ei zan liburuetan ikasitako utsa, berak bizi edo bizi nai ebana baiño. Tito aitarentzat ez ei dago mistika kristiñaurik, kurutze bakorik. Kristo eta kristiñauaren bizitza kurutzean billatu bear ei dira.

Holandatik Titoren izena eta argiak kanpoko erri askotara zabalduko dira. Alemanian, Frantzian, Italian, Españan, Irlandan eta goi-Emekari ibillia da bera: Batzuetan teologoek eta Mixio-batzarretan parte artzen, beste batzuetan iker-lanen bat edo mistika gaiez itzaldiak egiten, eta olan Alemanen eskuetan jausi baiño len, amabi bat liburu argitaratu ditu, artikulua eundaka idatzi, itzaldiak an or emen askoz geiago emonak, mistiko zar eta barrien ainbat liburuari itzaurre sakonak eginda.

Praille txiki erriskugarri ori!


Nazitar zapaltzaillek Holandan eroan eben jokabidea jakiña da: euren gogoko agintariak ipiñi, euren nazitarkeriak zabaldu, gorputz eta gogoen jabe egin nai. Eurak nai ebena zan egia; ortik aurrerakoa, ondatu bear zan guzurra. Holandarrak ez dabez euren buruak makurtu nai, inondik inora. Baiña eurok beartu gurez, nazitarrak agindu zorrotza emon dabe. Ango egunkari eta aldizkariak nazitarrak ontzat emon eta bialdutako barriak baiño ez dabez argitaratu bearko. Holandako gotzaiñek euren ordezkariari, Tito Brandsmari emon dautse euren



erabagien barri eta euren argibideak katolikoek aldizkaria eta egunkariari zabaltzeko zeregiña: ezezkoan egon bear dabe, nazitarren aginduari jaramonik egin ez. Batera ta bestera dabil Aita Brandsma, Gotzaiñen agindua betetan, arriskurik andienez eta bape bildur barik.

«Ostendu zaitte, ostendu zaitte», entzuten dau Brandmak askoren agotik. «Bai», diñotsoe gotzaiñak be: «Guri baiño lenago elduko deusue zuri». Baiña praille txikia ez da ikarutzen. «Neu ibilli beste batzuk adoretzen eta kalera ateraten, eta neu ostendu? Ez orixe. Aterioai arpegi emoteko kristiñauak bear dira gaur».

26ra arte.



Himmler eta beste agintari batzuk.

Eta bein, or eldu jakoz polizimutillak, goizeko laurak inguruan. Prailletzeko gelatxoa dana arakatu deutsoe, eta badaroe praille-soiñeko barik, otoitz-liburua, beste liburu bat, idazteko papel zuria eta... tabakorri apur bat bakarrik ateraten itxita. Asi jako Kalbarioan gorako bidea, sei-zazpi illabeteko bidea, ezpetxerik espetze, 1942 urtarrillaren asi ta uztaillaren

Lenengo egotaldia Sheveningen-
go espetxean, bakarreko gela estu baten. Batera eta bestera iñon gelditu eziñik beti ibilli dan praillearentzat egiña ez dirudi, baiña baktade ori oso gozko egin jako berari. Brandsma aitaren arimea mistiko batena izan da beti. Orain dau or bere barru mistikoa azazketako era. Gela estu atan, Kristo Kurutzekoaren irudi bat ipiñi dau orman, eta arexen aurrean egoki azaldu ditu bere barruko sentierak, bertsotan.

Bertsook laster zabalduko dira Holandan zear eta etxe, eskola, geixotegi eta espetxe askotan esango dira. Biñan-biñan borobil-duriko bertsoak dira:

Nigana maitez begira zaitut or, Jauna,
Zure begikun maitekor orren biguna.
Maite-irakiña sartzen deus niri muñetaraiño.
Ez da adiskide leialagorik Zu baiño.
Ontzi mingotsa edan bearra dot gaur gauean.
Baiña artara noa neu poz betean.
Gurutze bide auxe dot maite nik, ez besterik.
Jaunaganako ez daukat bide oberik.
Neke ta miñak zori aitzoko ez nabe egiten.
On ez dodanik eurotan ez dot aurkitzen.
Bai, oster, bai, irabazirik geiago.
Zugaz egiten nabela, Jauna, batago.
Itxi eidazu Zeugaz bakarrik egoten.
Naiz ez etorri niri iñor pozik emoten.
Otz-giro utsa naiz izan gela onetan,
Bakar egote au pozgarri dot benetan.
Orma-arteon, Zeu lagun, Jesus, eztitan nago.
Non emen baiño Zuanik egon urrago?
Jarraitu nigaz emen egoten, Jesus eztia.
Lagun bazaitut, neugaz dot on guztia.

Etxekoai bere gelako eta bakartadeko poz ori adierazoten deusenean, Kempis-en kapitulu bat jatorko gogora. Kempis orren mistikeria salatzen ei dabe askok: baiña gela barruko gozotasuna adierazten dauanean, gauza eder jatorrak ei diñoz. Sheveningen-ko egotaldia ondo etorri jako bere biziko asmo bat burutzeko: Santa Teresaren bizitza bat idaztea. Baiña dana amaitu barik itxi dau, 273 garren folioan.

An egin deutso poliziak lenengo itaunketa. Azkenean txosten bat idazteko eskatu deutsoe, berak eta Eleizeak Holandan erabili daben jokabidea azaltzeko. Txosten orretan azkenengo berbak onexek ditu: «Jaungoikoak bedeinkatu dagiala Holanda; Jaungoikoak bedeinkatu dagiala Alemania». Baiña nazitarrak Berlindik emon daben epaia auxe izan da: Eurak Holandarrak

alkartzeko egin dituezan alegiñai azpi-jokoa egiten ibilli dala Gotzainakaz batean.

Eta Sheveningen-etik epaillaren 12an Amersfoort-era daroe. Berak etxeokoi beti lez labur idazten deutse: «Banoa danera egiñez. Gelako bakartadea amaitu jat. Emen aizea artzeko eta anaiarteko bizimodua daukat. Ondo doa dana».

Egia esateko, gauzak ez joakozan askoz obeto. Lagunak baditu, beste askoren zoritxarrak ikusteko erea be bai. Al dauana egingo dau geixo batzuei laguntzen, eta itxaropena galdurik dagozani poz apur eroaten. Bariku Santu egunean itzaldi bat egin dautse lagunai kajoi baten ganetik. Kristo Kurutzeko gogoratu dautse eta kristiñauak zelan bere nekeak Kristorenakaz bat egin bear dituen azaldu. Pazko egunean, beste itzalditxo bat. Itzaldi orrek diralata, zaintzailleak jakin dabenean, zigortuen artera bialdu dabe. Baiña ez luzaroko.

Andik egun gitxira, apirillaren 26n, Pazko aste barruan, barriro Sheveningen-era, an epaikaritzat dagozanen itaunketa barriari erantzuteko. Oraingoan kontu luzeagoak eskatzen deutsoez: Nimegako Unibertsitate atan zer irakatsi ta egin dauan, eskoletan, eta egunkarietan zer erabilli dauan, eta zergaitik eta zelan ibilli dan judeguak estaltzen eta arein umeak eskoletan artzen. Danari zuzen eta ikara barik erantzun deutsoenean, epaikariak, erruki artu baleutso lez, azkenengo itauna egi-



Ziri zorrotzeko esparrauan atxillotu bat.




Dachau-ko inperuan. Ofantxe ikusi eta marraztu eban bere espetxe-lagun karmeldar batek. Emen il zan Tito martiri egiñik 1942-ko uztailaren 26n, arratsaldeko ordu bietan.

Baiña lenengo, Cleves-era egun batzuetarako. Oindiño Holanda barruan, bere-tarren artean dago. Eta adiskide batzuk alegiñak egin nai da-bez epaituaren alde. Espetxeko kapellauak be bai. Epai-kariari eske bat egin bear ei leuskio, erruki eskea. Baiña dana alperrik. Ez dago errikurik, praille arriskugarriegia ei da praille txiki ori. Eta bagillaren (ekainaren) erdi aldean, an doa bere kalbarioaren gorenera, Dachau-ra. Zergaitik esan ete dautse epaikariak ara Titogaz doazenai: «Dachau ez dozue leku txarra. An dana dozue duan. Guztiak alkarri laguntzeko leku egokia?»

Cleves-tik urtekeran Aita Tito Brandsma dana al-datuta dago. Ez dirudi lengoa. Aparteko poza dario alde guztietatik. Gure Jauna artu dauanean etorri jako poz ori. Eta iribarre gozoaz agur egin dautse Cleves-en itxi diranai. Dachauko zigorlekuan ez da bera iñor, zenbaki uts bat: 30492 garrena, soineko irrigarri baten barruan estaldu-ta. Lagun ezagun asko aurkitu ditu bertan, benetako alkar-maitasuna erakusten dabenak batzuk, beste batzuk argalaren argalaz itxurarik ez daukenak, il-aiñik, bu-

rua galtzeko zorian dagozanak. Berak lagun bati esan deusanez, «orain len itzez emondako irakatsiak egitez erakusteko ordua dogu». Alan be, berak, uztaillaren 12 etxekoai idatzi deusenean, betiko lelo darabil: «Ni ondo nago, Jaungoikoa lagun banao emengo egoerara egiñez».



Jakiña: etxekoek ez dabe jakingo presoak zelango tratua dauken ango borrreruen aldetik. Ez dabe jakingo, bein betaurrekoak jausi jakozalako, jo ta jo eiota itxi dabela. Ez dabe jakingo egun euritsu baten, basatsa baten jausita jagiteko indar barik ia leituta gelditu zala ta geixotegira eroan bear izan dabela; ez dabe jakingo anka biak zauri zauri eginik daukazala. Ezetako gauza izan dan bitartean, pozik andiena zera izan dau: zaintzaillen ixilik, Gure Jauna eroan al izatea, berak artu eta besteai emoteko.

Neke guztien artean, alan da guzti be, Brandsma aitak ez dau bere irribarre gozotxoak galtzen. Orain dau bere bertsoko au esateko ere: «Non emen baiño zukan egon urrago?» Ur dau Jauna. Uztaillaren 26n, zaintzaillen ixilik, lagun batek azkensakramentutzat Gure Jauna eroan deutso. Arratsaldean bertako borrreruak zanetara ziztada ilgarri bat emonda, ilik itxi dabe eta gorpua ango sulabetan erre. Alan iragarri eutsen etxekoai.

Gizonen gaiztakeria nekez eldu leiteke Dachau orretan eta orren antzeko lekuetan joan dan baiño urriñago. Gizonak gizona zapaltzeko nekez asmauko da asmakizun ankerrago eta lotsa-



garriagorik. Gaiztakeri orren ondoan atsegin jaku Brandsma baten duintasuna, eta anditasuna, bere irribarre gozotxoan ageri ebana, ikustea.

Holandak bere ispillu garbitzat ikusi dau bere seme onen bizia eta jokabide guztia, bere erriaren asktasunari eusten azkenengo ordurarte iraun ebalako. Ainbat eratarra eta ainbat lekutan egin dautso bere omenaldia.

Elizeak, gizonen eskubideen alde, judeguen alde eta Eleizearen eskubideen alde bizia emoteraino joan zalako, autormenik ederrena egin deutso: fedearen aldeko martirien artean ezarri. Gure aldizkari au ez da lotsa, ez egunkarien askatasunagaitik ilzan ori geure gomutamentxoa eskintzen, eta beste guztiak, Holandararak, kristiñauak, katoliko diranak, eta ezdiranak, eta protestanteak, eta gainerakoak egin deutsezan omenaldiak geurek egin nai ditugu.

L. Akesolo